



-Jose Azurmendi eta Txillardegi 2008ko otsailaren 29an Soziolinguistika Klusterrak
lako omenezko ekitaldian.



I. ATALA TXILLARDEGIREN LANAREN OMENEZ

>>>

1

TXILLARDEGIREN OMENEZ: AITORTZAK

Maria-Jose Azurmendi

*Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna
BAT Soziolinguistika Aldizkariaren batzordekidea
Helbide elektronikoa: ehu-azurmendi@telefonica.net*

Laurogei urte betetzen dituzula eta, Txillardegi, nire **zorion beroenak** eman nahi dizkizut, edo dizkizuet —zure emazte Jone ere elkartuz—, euskararen eta Euskal Herriaren alde orain arte bete duzuen ibilbide luze, aberats eta etengabeagatik. Orokorrean, pozgarria bazaigu zure 80. urtemuga ospatzea, are gehiago *BAT Soziolinguistika Aldizkaritik* begiratu-ta, zu izan zarelako hamaika urtean zehar aldizkariaren lehen zuzendaria bere sorreratik 1990ean, Euskal Kulturaren Batzarrean (EKB), 2000. urtea arte, jadanik Soziolinguistika Klusterrean. Ondorengo sei urteetan, 2001-2006 bitartean, nik jarraitu diot zuzendari lan horri, eta, horregatik, oso gogoko dut omenaldi honetan parte hartzea.

Euskararen inguruan ez da honakoa eskaintzen zaizun lehen omenaldia, izan ere, oso aspaldidanik, 1960. hamarkadan hasita zure lanak hizkuntzalaritzan, literaturan, hizkuntza-plangintzan eta soziolinguistikan ugariak eta aipagarriak dira. Horietako batzuk ahoz eman dituzu, besteak idatziz, irakasle zein ikerlari moduan; kasu batzuetan bakarrik eta besteetan erakunde edo talde ezberdinen kide bezala, *BAT Soziolinguistika Aldizkariaren* kasuan bezala. Esan gabe doa, egiten zaizun omenaldi bakoitzak beste guztiontzat ere berebiziko interesa baduela.

Nolanahi ere, oraingo hau berezia dela esango nuke, besteak beste, Soziolinguistika Klusterra eta bertako *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* dire-

lako omenaldi honen sustatzaileak. Soziolinguistika Klusterra, gaur egun, erakunde berezitua da jakintza-arlo honetan. Bertan, ikerketa-lerro eta ikastaro bereziak bideratzen dira, hainbat kasutan bakarrik eta beste-etan beste erakunde eta eragileekin koordinatuta. Ildo horretan, adibide esanguratsua da *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, euskararen egoera soziolinguistiko sinkronikoa, diakronikoa, erlatiboa edo konparatiboa ezagutzeko gaur eguneko derrigorrezko erreferentzia izatea lortu baitu. Eta erreferentzialtasun hori, neurri handi batean, parte-hartze zabal eta anitza erdiesteari zor zaio. Horrela bada, aldizkariaren ibilbidean izan duzun eragiteagatik, zure 80. urtebetetzea ospatuz, zure ibilbide luze eta aberatsaren aurrean gure aitortza eskaintzera gatozkizu.

Ez dagokit niri zure historia luzea aditzera ematea; nahiko ezagutu ez eta, nahita ere, ezingo nuke. Nolanahi ere, zurekin izandako harreman eta elkarrekin egokitu gareneko aipuak egitea oso gogoko izango dut.

Euskararen inguruko harreman zuzenak edo zeharkakoak nahiko aspaldidanik izan ditugu. Aipa ditzadan ondoren horietako batzuk:

- 1970 hamarkadan, SIADECO erakundearen inguruan paradigmaticoak kontsideratu ziren ikerketa eta argitalpenetan, egileen artean ginen biok, esate baterako, Euskaltzaindiak argitaratutako *Euskararen Liburu Zurian* (1977)¹.

Donostiako Deustuko Unibertsitateko “Filosofia eta Letrak” titulazioan urte asko eman genituen irakasle moduan garai berean. Ondoren, Euskal Herriko Unibertsitateko “Filosofia eta Hezkuntzen Zientziak” titulazioan zu Pedagogia Fakultatean eta ni Psikologian kokatu ginen, horietan ere soziolinguistika, psikolinguistika, hizkuntzaren jabekuntza eta apendizaiia, eta antzeko ikasgaietan, beti ere, tartean euskara landuz.

- Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) eskaini zizun omenaldian, eta *Txillardegi, lagun giroan* (2000) omenezko liburuan “Euskararekiko ikerkuntza egungo zientziagintzan” izeneko artikuluekin parte hartu nuen.
- Elkarrekin izan ginen Euskararen Gizarte Erakundearen KONTSEILUAK 2006an antolatu zuen *Erabilera areagotzeko hizkuntza politikaren bila* izeneko jardunaldian. Koldo Mitxelena Kulturunean burututako jardunaldi hartan, “Euskararen erabilera aztertzeke eredu matematikoa” aurkeztu zenuen, eta nik “Euskara erabiltzearen erraztasuna/zailtasunaren eragin emozionala eta horren ondorioak”, gero UZTARO aldizkarian argitaratu zena.²
- Nik ikusi zaitudan azken egitasmo publikoa ere aipatu nahi nuke: Soziolinguistika Klusterrak 2008an antolatutako *I. Soziolinguistika Jardunaldia: Geroa bermatzeko, oraina ezagutu. Euskararen soziolinguistikan I+G+B ekitaldia* izan zen. Jardunaldia Donostiako Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean burutu zen eta Xabier Iasik zuzendutako “Euskararen kale erabilera 1989-2007: 3 ahots” mahai-inguruan

Oso aspaldidanik, 1960. hamarkadan hasita zure lanak hizkuntzalaritzan, literaturan, hizkuntzaplantzintzan eta soziolinguistikan ugariak eta aipagarriak dira. Kasu batzuetan bakarrik eta besteetan erakunde edo talde ezberdinen kide bezala, BAT Soziolinguistika Aldizkariaren kasuan bezala.

Aldizkariaren ibilbidean izan duzun eragiteagatik, zure 80. urtebetetzea ospatuz, zure ibilbide luze eta aberatsaren aurrean gure aitortza eskaintzera gatozkizu.

*Sakon gorde nuen enfasi
eta borondate
handiarekin esan zenuen
zerbait: Donostia egin
behar genuela Euskal
Herriko hiri handi
euskaldun
erreferentziazkoa;
hiriburu euskaldunena
izatek hiriburu
euskaldun prototipoa
izatera eramane behar
genuela, alegia.*

*BAT aldizkaria,
Euskararen aldeko
mugimendu herritarra
sendotzera eta
bateratzera datorrena”.*

parte hartu zenuen Iñaki Martínez de Luna eta Kike Amonarriz kideekin batera.

Sentsazio ugari jaso nituen orduan eta modu ezberdinean ikusi zintudan. Sakon gorde nuen enfasi eta borondate handiarekin esan zenuen zerbait: Donostia egin behar genuela Euskal Herriko hiri handi euskaldun erreferentziazkoa; hiriburu euskaldunena izatek hiriburu euskaldun prototipoa izatera eramane behar genuela, alegia. Gogoeta orokor nagusia iruditu zitzaidan, eta sarri ekarri dut gogora harrezkero. Omenezko zenbaki honetan jasotzen da gai hori Ainhoa Beolak Donostiako Euskararen Patronatuaren izenean egindako artikuluan. Zure gomendioari erantzunez agian? Gai honen harira honako hau ere galdetuko nizuke: nola uztartzen da Donostiako gaur egungo euskararen egoera eta plangintza, zuk nahi zenukeenarekin?

- *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* egitasmoarentzat izan duzun garrantziaz ere zertxobait esan nahi nuke. Euskararen eta Euskal Herriko historian badaude kontuan hartu beharreko zenbait ekimen garrantzitsu. Horietako asko oraindik behar bezala baloratzeko daude, eta beste batzuen inguruan hasiak dira lan horietan, esate baterako, Euskaltzaindian, Joseba Intxausti eta beste batzuen inguruan.

Baloratu beharreko horien artean euskal argitalpenak aipatu nahi nituzke orokorrean, eta zehazki aldizkariak. Jadanik *JAKIN* aldizkaria jasotzen eta aztertzen ari dira, neurriren batean behintzat, eta nire ustez sakon aztertzea mereziko luke.

Nik *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* nahi dut orain aipatu, esan bezala, Txillardegirekin lotura zuzena duelako. Adierazgarriak dira lehen zenbakietako testuak, bertan azaltzen direlako aldizkaria sortzearen arrazoiak, ibilbidearen nondik norakoak, atalak eta erabili beharreko formak, askotan, Txillardegi beraren hitzetan. Bereziki gogoratu nahi nuke lehen zenbakian egindako aurkezpena³, oraindik baliagarriak diren helburu nagusiak biltzen dituelako:

1) “«Bat-eginik ari gara; bat-eratu gaitezen» idatzi zuen norbait, denok gogoan dugun ‘Bateginik’ kanpaina haren erdian. Hona hemen orain BAT aldizkaria, Euskararen aldeko mugimendu herritarra sendotzera eta bateratzera datorrena”;

2) “Euskal Herriaren hasieran EUSKARA zegoen Herriaren erataile; geroztik Euskarak eman dio izena Herri honi; eta herritarren arteko ezberdintasun, gatazka, kontradikzio eta guzti, Euskarak batzen gaituela aitortu ohi dugu sarritan. Ez dugu uste, ordea, Euskara Euskal Herri eta gizarte historikoaz haraindiko ezer denik; alderantziz geure historia egunerokoan egiaztatu beharrean gaude euskaldunon bateratzailea dugula euskara, geure Herriaren desintegrazioari uko eginez”.

3) "Euskararen monopolizazioaren eta manipulazioaren kontra-ko protesta eginez abiatzen da BAT aldizkaria, aitormen oinarriko honekin:

«Euskaldun —euskal herritar— guztiona eta guztiontzat da Euskara». Abiaturuan herritar guztiok batzen bagaitu gure hizkuntza nazionalak, guztiok horren berreskurapen osoaren ahaleginetan bateratzea du helburutzat BATEk. Horretarako lekua ireki nahi du: albiste, azterketa, gogoeta eta kritikarako bateragunea. Bateragunea izango bada ere, ez da erdigunea aldizkari hau, Euskara bera bait da euskaldun bakoitzaren eta euskal elkartearen 'erdigunea', Txepetxek hitzez. Erdiguneratze-prozesua da Euskararen berreskurapena eta euskaldunon euskalduntzea. Euskal Herriaren BATA historikoa Euskara da, izan ere".

4) "«Hizkuntza ez da gramatika bat: Deklinazioa, Aditza, Sintaxia, hiztunek osatzen duten Hizkuntza Komunitate bat baizik», idatzi berri du Iñaki Larrañagak. Edonolako komunitatek bezala, bitariko dimentsioa du hizkuntzazkoak: barrurakoa eta kanporakoa. Barneko kidetasunean (elkartasunean) eta elkartearen bere buruarekiko berberatasunean mamitzen da lehenengoa; besteenganako berezitasunean baieztatzen da bigarrena. 'Bateratzea' eta 'at-eratzeta' edozein elkarteren bi mugimenduak dira: barrurakoa eta kanporakoa... Euskaldunok *euskararen* bateratzea eta euskaldunok *euskaraz* at-eratzeta, gure hizkuntzazko berreskurapen osoaren bi alderdiak dira".

5) "Euskararen erdigunerako Herri osoaren bidegintza honetan bateratzeko deia zabaldu nahi du hasieratik bertatik BAT aldizkari honek: Kultur indar eta talde guztiak batera, sindikatu guztiak batera, alderdi politiko guztiak batera, herrialde guztiak batera, erakunde publiko, pribatu eta herritar guztiak batera... Herritar guztiok batera! Bakoitza bere lekutik eta egoeratik, baina batera!. Orduan Euskararen 'aurkako' monopolizatzaileak, minimizatzaileak eta manipulatzaileak atzean geldituko dira bakarrik, euskaldunok erdaraz banatu nahi gaituztelako, baina ezingo dutelako".

Nire ustez, ideia horiek guztiak gaurkotetasun handia dute. Ez al da gure akatsa oraindik ere helburu horiengandik urruti egotea? *BAT Sozio-linguistika Aldizkarian*, ahaleginak egiten ditugu hau guztia praktikan mantentzeko gaur egun ere.

E. Baxok, iaz aldizkariak omendu zuenak⁴, nahiko presentzia handia izan zuen hasierako zenbaki haietan. Nire pozerako, esan behar dut nik ere azkar egin nuela aldizkaria neure, eta hasiera-garai haietan artikulua bat argitaratu nuela "Hizkuntzak abertzaletasunen egituratzean" izeneko⁵ Baina, azpimarratu behar da, ezinbestean, hasiera-hasieratik Txillardegik aldizkarian izandako presentzia eta gidaritzaren handia.■

"Euskal Herriaren hasieran EUSKARA zegoen Herriaren eratzaille; geroztik Euskarak eman dio izena Herri honi; eta herritarron arteko ezberdintasun, gatazka, kontradikzio eta guzti, Euskarak batzen gaituela aitortu ohi dugu sarritan.

"Euskararen erdigunerako Herri osoaren bidegintza honetan bateratzeko deia zabaldu nahi du hasieratik bertatik BAT aldizkari honek.

Azpimarratu behar da, ezinbestean, hasiera-hasieratik Txillardegik aldizkarian izandako presentzia eta gidaritzaren handia.

*Euskal Herriak eta
hizkuntzak ukipen-
egoerako menpekoaren
lekua betetzen dute;
alderantziz, ukipen-
egoerako
dominatzailearen lekua
hartzten dute Espainiak
eta Frantziak, herri eta
hizkuntzekin.*

TXILLARDEGIREN OMENEZ: GOGOETAK

Maria-Jose Azurmendi

*Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna
BAT Soziolinguistika Aldizkariaren batzordekidea
Helbide elektronikoa: ehu-azurmendi@telefonica.net*

Zuk esandakoen artean nik ezagutzen ditudanak, gogoeta ugari eragin dute nigan sarri, baita gaur egun ere. Egia esan, merezi du zure ibilbide luze eta argitalpen-kopuru handiaren biltze-lana egitea, azterketa orokor eta sakon bat burutzeko. Antzera esango nuke *BAT* aldizkariaren inguruan ere. Alabaina, omenaldi moduan, orain, zugandik jasotako ideia pare baten inguruan nire gogoeta zenbait eman nahi nituzke aditzera hemen, modu apalean.

Gure artean ezaguna da euskararen erabileraren inguruan sortu duzun eredu matematikoa⁶. Gogoeta ugari egin daiteke ereduari buruz; nik, ordea, gutxi batzuk aipatuko ditut.

- Euskararen egoera ez da inon orokorra, autonomoa, lasaia, librea, nahikoa edota beharrezkoa. Horren arrazoiak, besteak beste, honakoak dira: euskaldun elebakarrak bukatu dira, Euskal Herri osoan euskaldun elebidunak nahiko sakabanatuta daude. Neurri handi batean, Euskal Herriak eta hizkuntzak ukipen-egoerako menpekoaren lekua betetzen dute; alderantziz, ukipen-egoerako dominatzailearen lekua hartzten dute Espainiak eta Frantziak, herri eta hizkuntzekin.

Aspaldi ikasi genuen errealitate pragmatikoan ez zirela egiak teoriarik esaten zizkiguten zenbait gauza. Adibidez, elebitasunaren eta elebiduntasunaren inguruan ukipen-egoera orekatuak izan zitezkeela, elebitasun gehigarriak, elebiduntasun lasaiak, eta abar. Gurean, EAEan behintzat, euskara ere hizkuntza ofiziala dela lortu denean, eta horrela elebitasuna ere (instituzionala, soziala eta, horren ondoren, elebiduntasun indibiduala ere) posible zela lortzea uste genuenean, zer ari zaigu gertatzen?, nola gaude?, noranzko bidean sartuta gaude?, nori dagokio gehienbat?,...

Esandako guztiaz haratago, soziolinguistikaren historian elebakartasun instituzionala eta soziala izan dira eredu nagusiak eta ohi-koak; elebitasun instituzionala eta soziala trantsizioko bigarren egoera izan da, aurretiko elebakartasun instituzional eta sozial batetik beste hirugarren egoera elebarkartasun instituzional eta sozial batera igarotzeko zubi modukoa. Horrela izan da gutxienez mendebalde garatua deituriko gure inguruan, gaur egun Europako Batasunean bertan ere. Hemen ez dira kontuan hartzen, noski, ukipen-egoeraz aparte

ezagutzen eta erabiltzen diren bestelako hizkuntzak, gurean adibidez ingelesa edo alemana, atzerriko hizkuntzak baitira horiek, ez ukipenezkoak (oraingoz behintzat, egungo mundu geroz eta globalizatu honetan).

Elebitasunaren egoera prozesatzailea honela adieraz daiteke, laburbilduz:

1. ELEBAKARTASUN INSTITUZIONALA ETA SOZIALA: A hizkuntzan
2. ELEBITASUN INSTITUZIONALA ETA SOZIALA: A eta B hizkuntzetan
3. ELEBAKARTASUN INSTITUZIONALA ETA SOZIALA: A ala B hizkuntzan

Hiru egoera horietan tipoak eta graduak bereiz daitezke. Adibidez, elebitasun-egoera zenbait modutan deskribatu ohi da: hizkuntza baten edo bestearen aldeko egoera desorekatua eta asimetrikoa, ala orekatua eta simetrikoa bi hizkuntzetan; kulturbitasunarekin lotuta ala ez; diglosiarekin lotuta ala ez; gehigarria ala kengarria eta abar. Komeni da ondo bereiztea elebakartasun eta elebitasun instituzionala eta soziala, nik orain kontuan hartzen ditudanak, eta elebakarduntasun eta elebiduntasun indibidualak, bestelako moduan funtzionatzen dutenak.

Alderdi horretatik ikusita badirudi honako ideiak eman daitezkeela:

— Sinkronikoki, euskara 2. elebitasun-egoeraren eta 3. elebakartasun-egoeraren artean kokatzen da. Baina kasurik onenean elebitasun desorekatuan, asimetrikoan, gatazkatsuan, eta, gainera, erdaren aldeko egoeran (espainiera eta frantsesa);

— Diakronikoki, zalantzezko egoeran, 2. elebitasun-egoera eta 3. elebakartasun-egoeraren artean. Orain, honako galdera egin daiteke: azken urteetako bilakaeraren datuak kontuan izanda, noranzko bidea da nagusi? onenean 2. elebitasuneranzko bidean? eta, horrela bada, nolako elebitasun-motarantz? Hona hemen erantzun beharreko galderak.

• Beraz, erraz uler dezakegu gurean ematen den eredia **anisotropia-eredua** dela, eta ez isotropiarena. Eta badirudi esan dezakegula onena ere badela; graduak bereiztea komeni da, eta eginkizun horretarako oso baliagarria da Txillardegiren eredu matematikoa. Eredu horren bitartez, euskaldun proportzioaren, euskaldun konpaktazioaren edo trinkotasun erlatiboaren arabera, euskara erabileraren atalasea aurreikusi eta azaldu dezakegu, atalase txikia, edozein modutan

Soziolinguistikaren historian elebakartasun instituzionala eta soziala izan dira eredu nagusiak eta ohikoak; elebitasun instituzionala eta soziala trantsizioko bigarren egoera izan da, aurretiko elebakartasun instituzional eta sozial batetik beste hirugarren egoera elebakar instituzional eta sozial batera igarotzeko zubi modukoa.

Euskara 2. elebitasun-egoeraren eta 3. elebakartasun-egoeraren artean kokatzen da. Baina kasurik onenean elebitasun desorekatuan.

Azken urteetako bilakaeraren datuak kontuan izanda, noranzko bidea da nagusi? onenean 2. elebitasuneranzko bidean? eta, horrela bada, nolako elebitasun-motarantz?

Askotan pentsatu ohi dut nola den posible euskararen alde horrenbeste gauza egin eta energia erabili ondoren, normalizazio-prozesua horren mantso joatea.

ere, euskaldunak elebidunak direlako eta erdaldun elebakarrak, berriz, gehienak.

Anisotropia kontzeptua aplika daiteke baita ere, nire ustez, euskararen erabileratik haratago, normalizazio-prozesuan gertatzen diren bestelako ezaugarriak neurtzeko eta ulertzeko. Adibidez, askotan pentsatu ohi dut nola den posible euskararen alde horrenbeste gauza egin eta energia erabili ondoren, normalizazio-prozesua horren mantso joatea (bilakaera normalizazio aldera doanean behintzat, beti eta etengabe ez baita horrela gertatzen).

Nik ezagutzen dudan neurrian, Europako Batasunean adibidez, ez da gure antzeko egoeran dagoen herri eta hizkuntzarik gu baino gehiago egiten duenik, ez absolutuki ez eta erlatiboki ere, ez ofizialki, ez instituzionalki (kasu batzuetan behintzat, gure lurralde ezberdinen egoera ezberdinak ikustean nabari agertzen da hau). Baina aldea, batez ere, maila sozialean dago, kontuan hartzen badugu zenbat erakunde, talde, ekintza, mobilizazio, ikerketa, argitalpen, eta abar ditugun martxan gurean. Baina galdera da: horrenbeste energia erabili ondoren, norainoko emaitzak lortzen dira?, edo aurreko puntuarekin lotuz: anisotropia eredu erabiliz, nola ebaluatuko genuke euskararen egoera? non kokatuko litzateke euskara lehen aipatutako bilakaera-ereduan? elebitasun sozialerantz, modu argian ala ez? nolako ekintza-trinkotasun maila beharko litzateke euskararen normalizazio-prozesuan eragin argia izateko?...

• Aurrekoarekin jarraituz, eta asko laburtuz, badirudi bi bide nagusi ikusten direla euskararen (eta Euskal Herriaren) normalizaziorantz argi joateko, baita normalizaziora iritsi eta bertan mantentzeko ere:

- 1) Mailaren arabera:
 - Maila jeneralean: Europako Batasuna, Espainiar eta Frantziar estatuak, Euskal Herri osoa,...
 - Maila partikularrean: gizabanakoa, taldeak,... (beti ere tar-teko mailak ahaztu gabe, gutxienez aipatutako maila ezberdinen artekotasuna ziurtatzeko);
- 2) Ekintzen arabera:
 - Jeneralenak direnak: politikoak, ekonomikoak, kulturala orokorrak,...
 - Partikularrenak direnak: ikerketak, argitalpenak, festak, kulturala partikularrak,... (berriro ere erdi bidean daudenak kontuan hartuz, adibidez: gure artean ditugun zenbait erakunde sozial, talde, ekintza eta abar hemen koka daitezke);
- 3) Zientzien ikuspegitik:
 - Ikuspegi jeneralagokoak: soziologia edo politika...
 - Ikuspegi partikularragokoak: psikologia edo pedagogia... eta abar.

Nahiz eta jakin, azkenean, mailak, ekintzak, ikuspegiak eta beselakoak bereizi behar direla, lotu eta erabili, nik honako ideiak plazaratuko nituzke:

- 1) Alde batetik, eraginkorragoa izan daiteke bide jeneralagoa azpimarratzea eta jarraitzea, maila, ekintza, ikuspegi, eta abarretan.
- 2) Eta bestetik, errazagoa da bide partikularragoa jarraitzea, batez ere, gauden ukipen menpeko egoeran, izan ere, gauza bat da nahi dena eta bestea ahal dena, edo bestela esanda, gauza bat da utziko digutena (partikularragoa den bidea gehiago) eta bestea aukera dezakeguna errazago (partikularragoa dena, berriz ere).

Eztabaida hau egokia da, besteak beste, Txillardegiren eredu matematikoan aipatzen den **leialtasuna** nola ulertu daitekeen ikusteko, leialtasuna kontzeptua gehienbat bide partikularretan kokatzen delako (agian, bide partikularretan): maila pertsonalean (norberaren sare eta taldeetan), ekintza arruntenetan, egunerokotasunean, ikuspegi psikologikoan, eta abar. Egia esango badut, nahiz eta asko pentsatu guzti honi buruz, ez ditut nahitaez gauzak geroz eta argiago edo ziurtasun handiagorekin ikusten. Leialtasuna ezinbestekoa zaigu, hori gabe jai dugu, horretaraino ikusten dut; baina, zer gehiago beharko genuke leialtasuna bera ahalik eta gehien handitzeko, zabaltzeko? eta, leialtasun-bideak bide jeneralagoekin lotzeko? lotze hori agian erdibidean dauden maila, ekintza eta ikuspegi bitartez lor daiteke? artekotasun honetan kokatzen al da gaur egun azpimarratzen den **sare sozialaren garrantzia**?...

• **Leialtasuna**, ordea, zer da? Gure artean **atxikimendua**, **fideltasuna**, **identitatea**... terminoak ere erabiltzen dira antzeko esanahia adierazteko, nahiz eta erabateko sinonimoak ez izan. Nekeza da jakitea nork erabili zuen lehenbizi leialtasuna hitza eta kontzeptua soziolinguistikan; nik dakidan neurrian, J. Fishman (hizkuntzaren soziologo eta soziolinguista) izan zen *Language loyalty in the United States* (1966) argitalpenean⁷. Gero, ordea, autore honek berak beste hitz eta kontzeptua erabiliko du, antzeko esanahia adierazteko (ez ordea erabat berdina): **identitatea**, edo gure egoera bezalako kasutan **identitate etnikoa**, edo **identitate etnolinguistikoa** (testuinguru psiko-soziolinguistikoan ohikoa den moduan): *Language and ethnicity* (1977)⁸, edo *Handbook of Language & Ethnic Identity* (1999)⁹, argitalpenetan bezala. Gurean nahiko ezaguna dugun Fishman autorearen identitateari buruzko bilduma ere X. Erize-k eginga du (*Llengua i identitat*, 2001)¹⁰. Hala ere, agian komeni zaigu leialtasuna eta identitatea biak mantentzea, teknizismo moduan, erraza agian gurean jadanik bereizirik erabiltzen ditugulako:

Nik honako ideiak plazaratuko nituzke:

1) **Alde batetik, eraginkorragoa izan daiteke bide jeneralagoa azpimarratzea eta jarraitzea.**

2) **Eta bestetik, errazagoa da bide partikularragoa jarraitzea, batez ere, gauden ukipen menpeko egoeran, izan ere, gauza bat da nahi dena eta bestea ahal dena.**

Zer gehiago beharko genuke leialtasuna bera ahalik eta gehien handitzeko, zabaltzeko?

Leialtasuna, Txillardegiren eredua erabiliz, isotropia eta anisotropia arteko euskararen erabileraren aldea neurtzeko, leialtasuna bai/ez ematen den eta nolako neurrian ematen den jakiteko;

Identitatea, berriz, euskararekiko identitate etnolinguistikoa, zenbait bestelako prozesu psiko-sozialak eta portaera psiko-sozialak ere azaltzeko.

—1) **Leialtasuna**, Txillardegiren eredua erabiliz, isotropia eta anisotropia arteko euskararen erabileraren aldea neurtzeko, leialtasuna bai/ez ematen den eta nolako neurrian ematen den jakiteko;

—2) Eta **identitatea**, berriz, euskararekiko **identitate etnolinguistikoa**, zenbait bestelako prozesu psiko-sozialak (hautemateak, motibazioak, jarrerak, emozioak,... baita euskararen gaitasun altua edo osoa ere (Txepetxek dion bezala, *Un futuro para nuestro pasado* (1987) argitalpenen¹¹)), eta portaera psiko-sozialak ere (euskararen aldeko aukerak, parte-hartzeak,..., erabilera bera ere) azaltzeko.

Iruditzen zait gurean gehiagotan aipatzen eta ikertzen dela identitatea, leialtasuna baino, baita nik neronek ere. Adibidez, E. Baxok-i egindako omenaldian, gure *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* honetan¹², honako artikulua idatzi genuen M.-J. Azurmendi, N. Larrañaga eta J. Apalategi artean: “Identitate Etnolinguistikoa (IELa) Euskal Autonomi Erkidegoan (EAEan)” (131-148 or.). Baina identitatea deitu, edo **nortasuna** deitu, ugariak dira jadanik egin diren ikerketak eta argitalpenak Euskal Herrian eta euskararekiko gertatzen diren zenbait fenomeno azaltzeko; adibidez, nahiko berria den *Euskal nortasuna eta kultura XXI. Mendearen hasieran/Identidad y cultura vascas a comienzos del siglo XXI/Identité et culture basques au début du XXIème siècle* izeneko argitalpena (2006)¹³.

Bukatzeko, Txillardegi, opa dizut beste urte asko betetzea, eta modu aberatsean betetzea: oraindik ere zure ideia soziolinguistiko berrien zain gaituzu eta.■

OHARRAK

1. *Euskararen Liburu Zuria*, 1977: 12: “Lagarren zatia: gurea bezala ez-ofizial diren beste hizkuntzek ukan dituzten problemak aztertzen ditu:... eta gero, hainbat erresumatan hizkuntza zapalduak birre-raikitzekeo esperientzia, aldekoa ala aurkakoa (Joxe Luis Alvarez Enparantzak)... Bosgarren zatia: molde generikoz eta teknikoz, baina hau ere esperientzia hori Euskadiri aplikatu gogoz, Elebitasunari buruzko lan bat ematen da (Maria Joxe Azurmendik)”.

2. M.-J. Azurmendi. 2008. “Euskara erabiltzearen erraztasuna/zailtasunaren eragin emozionala eta horren ondorioak”, *UZTARO* 64, 83-97.

3. *Soziolinguistika BAT Aldizkaria* 1, 1990eko otsaila: 7-8. EKB.

4. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 67. 2008 (II). *Soziolinguistika Klusterra*.

5. Azurmendi, M.-J. 1991. “Hizkuntzak abertzaletasunen egituratzean”. *Soziolinguistika BAT Aldizkaria*, 3-4: 175-189, 1991ko maiatza.

6. Eredu matematikoaren azken bertsioa *Hacia una Socio-Lingüística Matemática* izenekoa da (2001), SEI (Soziolinguistika Institutua Sortzen) erakundeak argitaratu zuena —gaurko Soziolinguistika Klusterra erakundearen aurrekoak—.

7. J. Fishman. 1966. *Language loyalty in the United States*. The Hague, The Netherlands: Mouton & Co.

8. J. Fishman. 1991. *Language and Ethnicity*. Amsterdam & Philadelphia: J. Benjamins & Co.
9. J. Fishman. 1999. *Handbook of Language & Ethnic Identity*. Oxford: Oxford University Press
10. X. Erize (Ed.). 2001. *Llengua i identitat*. (J. Fishman: *Language and Ethnicity*). Alzira: Bromera.
11. José M^o Sánchez Carrión ("Txepetx"). 1987. *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas*. San Sebastián: ELKAR.
12. M.-J. Azurmendi, N. Larrañaga & J. Apalategi. 2008. "Identitate Etnolinguistikoa (IELa) Euskal Autonomi Erkidegoan (EAEan)". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 67 (2), 131-148.
13. E. Baxok, P. Etxegoin, T. Lekunberri, I. Martinez de Luna, L. Mendizabal, I. Ahedo, X. Itzaina & R. Jimeno. 2006. *Euskal nortasuna eta kultura XXI. Mendearen hasieran/Identidad y cultura vascas a comienzos del siglo XXI/Identité et culture basques au début du XXIème siècle*. Eusko Ikaskuntza.